



ORIOKOUNDALA

**AKTA**

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2011ko urtarrilaren 25a, asteartea

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 19:00      **BUKATZEKO ORDUA:** 20:00

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Jon Redondo Lertxundi

**Zinegotziak**

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez de Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

Aztergai-zerrendaz kanpo, alkateak proposatzen du talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako bi mozio sartzea: bat, Mendebaldeko Sahararen gaur egungo egoerari buruzkoa, 'Zutik Sahara! Elkartasuna Sahararekin!' izenekoa, eta bestea, Orioko kirol portuko langileen kaleratzeari buruzkoa.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]: **ONARTZEA** bi mozio horiek sartzea udalbatzarraren aztergai-zerrendatik kanpo, eztabaidatzeko eta dagozkion erabakiak hartzeko.



## AZTERGAI-ZERRENDA

- 1.- Onartzea, egoki bada, Orioko udal planeamenduko arau subsidiarioetako 8. sektoreko —Munto— exekuzio-unitatearen birpartzelazio-proiektutik eratorritako PR/3 partzelaren partaidetza indibisoa (%20,5721) besterentzea, lehiaketa publiko bidez.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udaleko funtzionarioen eta bestelako langileen lan-baldintza onuragarriagoak.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren 2011ko aurrekontu orokorra eta 2011ko plantilla organikoa eta lanpostu-zerrenda.
- 4.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko udal kanpineko taberna eta supermerkatu zerbitzuak kontzesio administratiboko erregimenean emateko kontratazioa.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboaren Orria, Orioko Antilla Hondartzako 1. zenbakidun eraikina okupatzeko eta bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko kontzesio administratiboaren kontratazioa arautuko duena.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboaren Orria, Orioko Antilla Hondartzako 3. zenbakidun eraikina okupatzeko eta bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko kontzesio administratiboaren kontratazioa arautuko duena.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orion hildakoen aldeko agur edo omenaldi zibilen arautegia.
- 8.- Onartzea, egoki bada, honako udal ordenantza fiskala aldatzea: hildakoen aldeko agur eta omenaldi zibilak egiteko udal-pilotalekua, kultur etxeko areto nagusia, udaletxeko udalbatzarraren aretoa eta baimendutako beste edozein udal areto erabiltzeko zerbitzua emateagatik edota udal eskuduntzako jarduera administratiboak egiteagatik kobratuko diren tasak erregulatzen dituen ordenantza fiskala.
- 9.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

**1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 8. SEKTOREKO —MUNTO— EXEKUZIO-UNITATEAREN BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUTIK ERATORRITAKO PR/3 PARTZELAREN**



## **PARTAIDETZA INDIBISOA (%20,5721) BESTERENTZEA, LEHIAKETA PUBLIKO BIDEZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Besterentzea lehiaketa publiko bidez egingo da, prozedura irekiz eta ohiko tramitazioz. Lehiaketaren iragarkia 157. zenbakidun GAO n argitaratu zen, 2010eko abuztuaren 18an.

Irekitako epean lehiatzaile bakarra aurkeztu da:

- INMOBILIARIA ORIO TXOKO TXIKI, S.L.

Kontratazio mahaiak proposatzen du Oriko Udal Planeamendurako arau subsidiarioetako 8. sektoreko —Munto— exekuzio-unitatearen birpartzelazio-proiektutik eratorritako PR/3 partzelaren partaidetza indibisoa (%20,5721) besterentzeko kontratua Aiestaran jaunak ordezkatzeko duen INMOBILIARIA ORIO TXOKO TXIKI, SL entitate merkantilari adjudikatzea, klausula partikularren orriaren 12.4 artikulua araberak, berak aurkeztu duela eskaintza ekonomiko bakarra eta, beraz, onena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, kontratazio mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **BI ABSTENTZIO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa) eta Garcia (EB/B-A), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**]:

1.- **BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2010eko irailaren 9an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

2.- **BEHIN BETIKOZ ADJUDIKATZEA** Oriko Udal Planeamendurako arau subsidiarioetako 8. sektoreko —Munto— exekuzio-unitatearen birpartzelazio-proiektutik eratorritako PR/3 partzelaren partaidetza indibisoa (%20,5721) besterentzeko kontratua Aiestaran jaunak ordezkatzeko duen INMOBILIARIA ORIO TXOKO TXIKI, SL entitate merkantilari; besterentzearen prezioa 1.404.205,90 eurokoa da, %18ko BEZa barne (1.190.005 eurokoa da Zerga-Oinarria eta 214.200,90 eurokoa da BEZa), eta notario-gastuak eta erregistrokoak entitate adjudikaziodunaren kontura izango dira.

3.- **ARGITARATZEA** erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

4.- **AHALMEN ZABALA EMATEA** Jon Redondo Lertxundi alkateari, behar diren dokumentu pribatu zein publiko guztiak sinatzeko, Oriko Udalaren izenean, Oriko Udal Planeamendurako arau subsidiarioetako 8. sektoreko —Munto— exekuzio-unitatearen birpartzelazio-proiektutik eratorritako PR/3 partzelaren partaidetza indibisoa (%20,5721) besterentzeko; hori guztia, besterentzea dagokion jabetza erregistroan guztiz inskribatuta geratu arte.



## **2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIKO UDALEKO FUNTZIONARIOEN ETA BESTELAKO LANGILEEN LAN-BALDINTZA ONURAGARRIAGOAK.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Oriko Udaleko ordezkariak sindikalak honako proposamena egin dio udalbatzarrari, udal funtzionarioen eta langile kontratadunen lan-baldintzak hobetze aldera: udal langile bat borondatezko eszedentzia egoeran dagoenean, bere interes partikularragatik, gutxienez urtebeteko eperako, gorde egingo zaio lanpostua lehen urtebete horretan eta eszedentzia-denbora ez da kontatuko sustapen, hirurteko eta eskubide pasiboen ondorioetarako; udal funtzionarioek eta langile kontratadunek ez dute inolako ordainsaririk jasoko borondatezko eszedentzia egoeran dauden bitartean.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonala eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2010eko abenduaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAIKA BAIEZKO BOTO]:**

**ONARTZEA** Oriko Udaleko ordezkariak sindikalak, udal funtzionarioen eta langile kontratadunen lan-baldintzak hobetze aldera, udalbatzarrari egindako proposamena: udal langile bat borondatezko eszedentzia egoeran dagoenean, bere interes partikularragatik, gutxienez urtebeteko eperako, gorde egingo zaio lanpostua lehen urtebete horretan eta eszedentzia-denbora ez da kontatuko sustapen, hirurteko eta eskubide pasiboen ondorioetarako; udal funtzionarioek eta langile kontratadunek ez dute inolako ordainsaririk jasoko borondatezko eszedentzia egoeran dauden bitartean.

Hori guztia Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 61. artikuluan eta Langile Publikoaren Oinarriko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 89. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

## **3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIKO UDALAREN 2011KO AURREKONTU OROKORRA ETA 2011KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTU-ZERRENDA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta, talde mistoaren izenean, adierazten du oraingo honetan alkateak borondate politikoa erakutsi duela udal aurrekontuan Udaleko beste talde politikoen ekarpenak txertatzeko.

Hala ere, adierazten du bere taldeak hainbat hutsune ikusi dituela garbi: 'Oriko Plaza' udal aldizkaria argitaratzeko aurrekontu-partidari eutsi zaio; Karkara aldizkaria eta Urola Kostako Hitza egunkaria argitaratzeko diru-laguntzak eskasak dira; udal-hilerrian obrak egiteko partida handia ezarri da, nahiz eta ez den egin bideragarritasun azterketarik; Motondoko padura berreskuratzeko partidari ez dago; udal kanpinaren etorkizuna bermatzeko udal plangintza egokia falta da; eta, azkenik, ez dago aurrekontu-partidari Oriko Herri Ikastolarekiko hitzarmena berreskuratzeko.



Ondorioz, Josebak esaten du talde mistoak kontrako botoa emango diola Udalaren 2011ko aurrekontua onartzeari.

Bixente Lasak hartzen du hitza eta, EAren izenean, adierazten du guztiz bat datorrela Joseba Goiburuk esandakoarekin eta honako hau bakarrik erantsi nahi duela: bere talde politikoak ez duela batere garbi ikusten auditorioari buruzko proiektuen idazketaren gaia, aldez aurretik ez delako inolako azterketarik egin, horren bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruz; azterketa hori egingo balitz, ikusiko litzateke aurreikusten dena gastu publiko handia dela eta diru-sarrerak, berriz, txikiak izango direla; horrez gain, Bixentek adierazten du bere talde politikoak faltan bilatzen dituela aurrekontuan Orioko Herri Ikastolaren diru-premiak finantzatzeko partidak eta Udalak Ikastolarekiko hitzarmena berreskuratu beharko lukeela. Ondorioz, adierazten du kontrako botoa emango diola aurrekontua onartzeari.

Azkenik, alkateak hartzen du hitza eta eskerrak ematen dizkie Udala osatzen duten talde politikoei, udal aurrekontuari egin dizkioten ekarpenengatik; aldi berean, adierazten du harridura handia sortzen diola Bixente Lasak emango duen kontrako botoa, bera Udaleko Kirol batzordearen burua delako eta, hain zuzen ere, udal aurrekontuko gastuetako 6. kapituluan aurreikusita dauden inbertsioen %74 kirol alorrekoa inbertsioak finantzatzeko erabiliko delako.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonal eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2011ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Iturain (EB-B/Aralar) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **BI ABSTENTZIO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa) eta Lasa (EA), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko Udalaren 2011ko Aurrekontu Orokorrari; aurrekontuaren laburpena, kapituluka, honako hau da:

## ORIOKO UDALAREN AURREKONTUA SARREREN EGOERA

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	854.378
2	Zeharkako zergak	350.336
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.250.251
4	Transferentzia arruntak	3.121.171
5	Ondarezko diru-sarrerak	237.112
6	Inbertsio errealen besterentzea	2.349.180
7	Kapital transferentziak	2.305.300
<b>GUZTIRA</b>		<b>10.467.728</b>



## GASTUEN EGOERA

Kapitulua	Izendapena	Euroak
1	Pertsonaleko gastuak	2.460.112
2	Ondasun arrunten erosketak	2.034.213
3	Finantzaketa gastuak	60
4	Transferentzia arruntak	1.095.177
6	Inbertsio errealak	4.529.480
7	Kapital transferentziak	125.000
9	Finantza pasiboak	223.686
<b>GUZTIRA</b>		<b>10.467.728</b>

## ORIO GARATZEN SL UDAL SOZIJATEAREN AURREKONTUA SARREREN EGOERA

Kapitulua	Izendapena	Euroak
5	Ondarezko diru-sarrerak	4.820
<b>GUZTIRA</b>		<b>4.820</b>

## GASTUEN EGOERA

Kapitulua	Izendapena	Euroak
2	Ondasun arrunten erosketak	4.820
<b>GUZTIRA</b>		<b>4.820</b>

## AURREKONTU FINKATUA SARREREN EGOERA

Kapitulua	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	854.378
2	Zeharkako zergak	350.336
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.250.251
4	Transferentzia arruntak	3.121.171
5	Ondarezko diru-sarrerak	241.932
6	Inbertsio errealen besterentzea	2.349.180
7	Kapital transferentziak	2.305.300
<b>GUZTIRA</b>		<b>10.472.548</b>



## GASTUEN EGOERA

Kapitulua	Izendapena	Euroak
1	Pertsonaleko gastuak	2.460.112
2	Ondasun arrunten erosketak	2.039.033
3	Finantzaketa gastuak	60
4	Transferentzia arruntak	1.095.177
6	Inbertsio errealak	4.529.480
7	Kapital transferentziak	125.000
9	Finantza pasiboak	223.686
<b>GUZTIRA</b>		<b>10.472.548</b>

2.- **ONARTZEA** Orioko Udalaren 2011ko Aurrekontu Orokorren Exekuzio Oinarriak.

3.- **JENDAURREAN JARTZEA** Orioko Udalaren 2011ko Aurrekontu Orokorra, Aurrekontu Propioa eta ORIO GARATZEN SL Udal Sozietate Publikoaren Aurrekontua biltzen dituen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoa betez; jendaurrean jartzea honako arauen arabera egiten da:

**a) Ikusgai dagoen tokia:** Udaleko Idazkaritza-Kontu-hartzailertzan.

**b) Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

**d) Inpugnatzeko arrazoiak:** Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

**e) Aurkezteko bulegoa:** Udaletxeko sarrera erregistroa, bulego orduetan. Asteleheneetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

**f) Zein organoren aurrean:** Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, aipatutako Aurrekontu Orokorra onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- **ONARTZEA** Orioko Udalaren 2011ko plantilla organikoa eta lanpostu-zerrenda. Nabarmenezkoa da, daukan garrantziagatik, Orioko Danbolin Musika Eskolako





langile finko etendunen egoeran onartutako aldaketa: aurrerantzean, beren lan-kontratua urte osokoa izango da eta, beraz, bete-betean aplikatuko zaie Musika Eskolako langile guztiei (irakasleei zein irakasle ez direnei) UDALHITZ 2008-2010 hitzarmena, EUDELeK eta ELA, CCOO eta UGT sindikatuen ordezkariak 2008ko irailaren 22an sinatutakoa, honako salbuespenarekin: ez zaizkie aplikatuko UDALHITZen 14., 15., 18. eta 30. artikuluetan ezarritakoa, lanaldiari buruz, lan-egutegiari buruz eta oporrei buruz. Horien partez, honako artikulua aplikatuko zaizkie:

#### **14. artikulua.- Danbolin Musika Eskolako langileen lanaldia.**

Danbolin Musika Eskolako langileen urteko lanaldia (1592 ordu edo parte proportzionala) honela banatuko da:

a.1) 1379 orduko presentzia fisikoa ikastetxean zuzendari-irakaslearentzat.

a.2) 1379 orduko (edo parte proportzionala) presentzia fisikoa ikastetxean beste irakasleentzat.

b) 213 ordu (edo parte proportzionala), ikastetxeaz kanpoko lanerako, beren irakasle-lanari dagozkion betebeharrak betetzeko. Ordu horiek behar bezala justifikatu beharko dira, dokumentu baten bidez (*1-2 eranskina, Ordu ez-presentzialak justifikatzeko inprimakia*); dokumentu hori hileko fitxari erantsiko zaio. Irakasleren batek bere orduen parte proportzionala gainditzen badu, ordu horiek opor-egunetan konpentsatu ahal izango ditu; opor-egun horiek eskolarik gabeko egunetan hartu beharko ditu. Opor-egunetan konpentsatuko diren orduak ez dira inoiz izango lanegun ez-lektiboetako ordu-kopuru totala baino gehiago. Gehiago badira, ordu horiek ez dira konpentsatuko, ez ekonomikoki eta ez bestela. Opor egun horiek eskatzeko, honako dokumentua bete beharko dute langileek: *Sartutako lanorduak opor-egunetan konpentsatzea eskatzeko inprimakia (1-3 eranskina)*.

c) Langile ez-irakasleek erakundearen gainerako langile publikoen lanaldi bera izango dute (edo parte proportzionala).

#### **15. artikulua.- Danbolin Musika Eskolako irakasleen asteko lanaldia.**

a) Zuzendari-irakaslea: Zuzendari-irakaslearen asteko lanaldia 35 ordukoa izango da (lanaldi osoa); irakasle-lanetan (txistua, musika-tailerra, musika-mintzaira), gehienez ere, asteko 15 ordu emango ditu.

b) Irakasleak: Asteko lanaldia 35 ordukoa izango da (edo parte proportzionala); horietatik 28 ordu (edo parte proportzionala) lektiboak izango dira eta 7 ordu (edo parte proportzionala), ez-lektiboak. Lanordu horiek guztiak presentzialak izango dira, ikastetxean egon beharrekoak. Irakasle bakoitzaren lanaldia urtero berrikusiko da, urriaren 1ean, eta ikasturte horretan espezialitate bakoitzean matrikulatu den ikasle kopuruaren arabera izango da. Ordu lektiboen kopurua jakiteko, ikusi 2. eranskina (*Ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren oinarriak*).





## **18. artikulua.- Danbolin Musika Eskolako irakasleen lan-egutegia.**

Urtearen hasieran, zuzendariak lan-egutegia proposatuko dio batzorde exekutiboari, ondoren udal organo eskudunak (Zuzendaritza batzordeak) onar dezan; proposamenerako kontuan hartuko dira seinalatutako jaiegunak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak emandako irizpideak. Nolanahi ere, lan-egutegia 197 lanegunekoa izango da; horietatik 175 lanegun lektiboak izango dira, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak emandako ebazpenaren arabera interpretazioan. Lan-egutegia bi alditan banatuko da: urtarilaren 1etik uztailaren 15era bitartean eta irailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

## **30. artikulua.- Danbolin Musika Eskolako irakasleen oporrak.**

1.- Irakasleek udan etenik gabeko 45 eguneko oporraldia edukitzeko eskubidea izango dute, uztailaren 15etik abuztuaren 31ra.

2.- Era berean, irakasleek eskubidea izango dute zentroko ikasleentzat zehaztutako oporraldi berbera edukitzeko Aste Santuan eta Gabonetan.

3.- Haurdunaldi, erditzeko eta edoskitze lizentziak abuztuarekin edo abuztuko zati batekin bat egiten badu, egun horiek lizentzia egunei gaineratuko zaizkie; gainontzeko opor egunak xurgatutzat emango dira.

Hemen ezarritakoez aparteko planteamenduak banan-banan aztertuko ditu organo eskudunak edo hark delegatzen duen pertsonak.

Azkenik, Oriko Udal Musika Eskolako irakasleen lansaioa urte bakoitzeko urriaren 1ean zehaztuko da, gora edo behera, ikasturte bakoitzean matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera.

## **4.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL KANPINEKO TABERNA ETA SUPERMERKATU ZERBITZUAK KONTZESIO ADMINISTRATIBOKO ERREGIMENEAN EMATEKO KONTRATAZIOA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Lehiaketaren iragarkia 2010eko azaroaren 4an argitaratu zen 211. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Lehiaketara proposamenak aurkezteko irekitako epean, honako lehiatzaileak aurkeztu dira:

1.- MARIA DA CONCEICAO DE JESÚS & ANA AMELIA DE JESÚS DA CONCEICAO

2.- MARIA INMACULADA GONTAN JARA



Maria Inmaculada Gontan Jarak aurkeztu duen dokumentazioa aztertuta, ez da onartu haren proposamena, ez duelako lehiaketa publikoa arautzen duten Klausula Ekonomiko-Administratiboetan ezarritakoa betetzen.

Kontratazio Mahaiak aho batez proposatu du Orioko Udal Kanpineko taberna eta supermerkatu zerbitzuak emateko kontratua MARIA DA CONCEICAO DE JESÚS & ANA AMELIA DE JESÚS DA CONCEICAOri adjudikatzea, berena delako ontzat eman den proposamen bakarra eta, beraz, beren proposamenak jaso duelako puntuaziorik altuena lehiaketan, Klausula Ekonomiko-Administratibo Partikularren Orriaren 15. artikuluan ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

1.- **BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2010eko abenduaren 14an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

2.- **BEHIN BETIKOZ ADJUDIKATZEA** Orioko Udal Kanpineko taberna eta supermerkatu zerbitzuak emateko kontratua MARIA DA CONCEICAO DE JESÚS & ANA AMELIA DE JESÚS DA CONCEICAOri; zerbitzua emateko ustiapen-kanona 15.000 eurokoa da (BEZ barne).

3.- **JAKINARAZTEA** erabaki hau prozedura administratibo honetan interesa duten guztiei, aurkez ditzaketen lege errekurtsoak adieraziz.

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (15.000 eurokoa) eman beharko du hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

**5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 1. ZENBAKIDUN ERAIKINA OKUPATZEKO ETA BERTAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK EMATEKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUENA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2010eko abenduaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

1.- **ONARTZEA** Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboaren Orria, Orioko Antilla hondartzako 1. zenbakidun eraikina okupatzeko eta bertan Udalak



baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko kontzesio administratiboaren kontratazioa arautuko duena.

2.- Baldintza Orriaren laburpena honako hau da:

### **1.- Entitate adjudikatzaileria.**

a) Erakundea: Orioko Udala.

b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzailera

### **2.- Kontratuaren xedea.**

a) Kontratuaren xedea: Baldintza-orri honen xedea honako hau da: arautzea Orioko Antilla Hondartzako 1. zenbakidun eraikina okupatu eta bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko kontzesio administratiboaren kontratazio-baldintzak.

b) Kontratuaren iraupena: Kontratazio honen xedearen iraupenaren epea, guztira, hamar urtekoa izango da, kontratu administratiboa sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

### **3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.**

a) Tramitazioa: Ohikoa.

b) Prozedura: Irekia.

c) Era: Lehiaketa.

### **4.- Gutxieneko kanona.**

Urteko gutxieneko kanona 29.500 eurokoa izango da, BEZ barne. Lizitatzaileriek aukera izango dute kopuru hori hobetzeko.

### **5.- Bermeak.**

Behin betikoa: 29.500 €.

### **6.- Iragarki gastuak.**

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

### **7.-Dokumentazioa lortzeko.**

Baldintza-orria [www.oriora.com](http://www.oriora.com) webgunean eta Udaleko idazkaritzan eskuratu ahal izango da.

### **8.- Proposamenak aurkeztea.**



- a) Epea: Hogeita sei egutegiko egun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza-orrian zehaztutakoa.
- c) Tokia: Udaleko idazkaritza-kontu-hartzailletza. Herriko Plaza, 1. 20810 Orio.
- d) Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 8:30etik 14:30era.

## 9.- Proposamenen irekiera.

- a) Tokia: Orioko Udala.
- b) Data: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo lanegunean; egun hori larunbatarekin egokitzen bada, data hurrengo lanegunera pasako da.
- c) Ordua: 12:00etan.

## 6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA, ORIKO ANTILLA HONDARTZAKO 3. ZENBAKIDUN ERAIKINA OKUPATU ETA BERTAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK EMATEKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2010eko abenduaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIA BAIEZKO BOTO**]:

1.- **ONARTZEA** Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboaren Orria, Orioko Antilla hondartzako 3. zenbakidun eraikina okupatzeko eta bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko kontzesio administratiboaren kontratazioa arautuko duena.

2.- Baldintza Orriaren laburpena honako hau da:

### 1.- Erakunde adjudikatzailea.

- a) Erakundea: Orioko Udala.
- b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

### 2.- Kontratuaren xedea.



a) Kontratuaren xedea: Baldintza-orri honen xedea honako hau da: arautzea Orioko Antilla Hondartzako 3. zenbakidun eraikina okupatu eta bertan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko kontzesio administratiboaren kontratazio-baldintzak.

b) Kontratuaren iraupena: Kontratazio honen xedearen iraupenaren epea, guztira, hamar urtekoa izango da, kontratu administratiboa sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

### **3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.**

a) Tramitazioa: Ohikoa.

b) Prozedura: Irekia.

c) Era: Lehiaketa.

### **4.- Gutxienerako kanona.**

Urteko gutxienerako kanona 29.500 eurokoa izango da, BEZ barne. Lizitatuzaileek aukera izango dute kopuru hori hobetzeko.

### **5.- Bermeak.**

Behin betikoa: 29.500 €.

### **6.- Iragarki gastuak.**

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

### **7.- Dokumentazioa lortzeko.**

Baldintza-orria [www.oriora.com](http://www.oriora.com) webgunean eta Udaleko idazkaritzan eskuratu ahal izango da.

### **8.- Proposamenak aurkeztea.**

a) Epea: Hogeita sei egutegiko egun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza-orrian zehaztutakoa.

c) Tokia: Udaleko idazkaritza-kontu-hartzailletza. Herriko Plaza, 1. 20810 Orio.

d) Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 8:30etik 14:30era.

### **9.- Proposamenen irekiera.**

a) Tokia: Orioko Udala.



b) Data: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo lanegunean; egun hori larunbatarekin egokitzen bada, data hurrengo lanegunera pasako da.

c) Ordua: 12:00etan.

## **7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORION HILDAKOEN ALDEKO AGUR EDO OMENALDI ZIBILEN ARAUTEGIA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/A) hartzen du hitza eta udal arautegi horren atarikoa irakurtzen du; honela dio, hitzez hitz:

*Gizarteak oro har badaki estatu ez-konfesional eta laiko batean pertsonen eta komunitateen askatasun ideologikoa, erlijiosoa eta gurtzakoa bermatu behar dutela erakundeek, ordena publikoa legearen arabera mantentzeko beharrezko diren mugak izanik horretarako muga bakarrik. Era berean, badakigu ideologia, erlijio eta kulturaren aldetik aniztasun handiko gizartea dugula, eta gizarte anitz hau bere ohitura eta ekitaldi sozialak adierazteko modua aldatzen ari dela etengabe.*

*Gaur egungo gizartean ezinbestekoa da hildakoen aldeko hileta edo omenaldi zibilak egiteko aukera ematea, erlijiorik gabe bizitza hautatu duten pertsonen omenez ospakizun duin eta pertsonalak egin ahal izateko, zenduaren bizitza-ikuskeraren arabera, alegia.*

*Gure gizartean, eta geure herrian bertan, erlijio guztiek beren hildakoei agur esateko ospakizun liturgikoetarako toki edo tenpluak dituzten moduan, Orioko Udalari dagokio egunetik egunera handitzen ari den eskaera sozial bati erantzutea.*

*Araudi honen helburua da, beraz, Orioko gizarte zibila osatzen duten familia, lagun, erakunde eta/edo entitateek beren hildakoei omenaldia egin, agur esan, hildakoek komunitateari egindako ekarpenak nahiz horien balio etikoak eta/edo giza-balioak aitortzeko antolatu nahi dituzten ekitaldien baimena eta ospakizuna arautzea.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2011ko urtarrilaren 17an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAIKA BAIEZKO BOTO]:**

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Orion hildakoen aldeko agur edo omenaldi zibilen arautegiari.

2.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua ezarritakoa betez, **JENDAURREAN JARTZEA** arautegia, 30 lanegunez,



interesatuek Udalbatzarraren aurrean erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko aukera izan dezaten. Udal arautegi hori interesatuen eskura dago udal idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal arautegia, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

**8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, HONAKO UDAL ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA: HILDAKOEN ALDEKO AGUR EDO OMENALDI ZIBILAK EGITEKO UDAL-PILOTALEKUA, KULTUR ETXEKO ARETO NAGUSIA, UDALETXEKO UDALBATZARRAREN ARETOA ETA BAIMENDUTAKO BESTE EDOZEIN UDAL ARETO ERABILTZEKO ZERBITZUA EMATEAGATIK EDOTA UDAL ESKUDUNTZAKO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIK KOBRATUKO DIREN TASAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2011ko urtarrilaren 17an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** honako udal ordenantza fiskalaren aldaketari: hildakoen aldeko agur edo omenaldi zibilak egiteko udal pilotalekua, kultur etxeako areto nagusia, udaletxeako udalbatzarraren aretoa eta baimendutako beste edozein udal areto erabiltzeko zerbitzua emateagatik edota udal eskuduntzako jarduera administratiboak egiteagatik kobratuko diren tasak erregulatzeko dituen ordenantza fiskala; tarifa bakarra ezartzen da: 35 euro ekitaldi bakoitzeko.

2.- Erabaki hau eta hasitako espedientea **JENDAURREAN JARTZEA**, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeako iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, honako arauen arabera:

**a) Ikusgai dauden tokia:** Udal idazkaritzan.

**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita, bulego orduetan.

**c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak:** Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

**d) Aurkezteko lekua:** Udaletxeako Sarrera Erregistro Nagusian. Aurkeztu ahal izango dira, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazten diren tokietan.





**e) Zein organoren aurrean:** Udalbatzarra.

Jendaurreko arauzko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakia eta aldatutako ordenantzaren eranskina behin betikoa bilakatuko da, beste erabakirik gabe.

Aztergai-zerrendatik kanpo, udalbatzarrak ondoko erabakiak hartu ditu, aldez aurretik, **AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**], urgentziazkotzat jo ondoren:

**10.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TALDE MISTOKO KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, MENDEBALDEKO SAHARAREN GAUR EGUNGO EGOERARI BURUZKOA, ETA 'ZUTIK SAHARA! ELKARTASUNA SAHARAREKIN!' IZENEKOA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; mozioak honela dio, hitzez hitz:

*Duela zenbait aste, ehunka, milaka saharar Mendebaldeko Saharako okupatutako hirietatik atera eta protesta kanpalekuak antolatzen hasi ziren. Kanpaleku horiek manifestatzeko eta adierazpen askatasunaz baliatzeko eraiki dituzte, hori egitea ezinezkoa baita Aaiungo eta Mendebaldeko Saharako beste hiri batzuetako kaleetan.*

*Kanpaleku horiek zapaldutako hitza, herri bati lapurtutako ahotsa berreskuratzeke sortu dituzte; saharar herriak erasoei, torturei eta legez kanpoko atxilotetei, baliabide naturalak indarrez kentzeari, bidegabekeriari, beste herrialde batzuen pasibotasunari, interes ekonomikoei, traizioari eta komunikabideen isiltasunari aurre egiteko ahots urragaitz eta bakezalea erabiltzen dutela erakusteko. Iristen diren berrien arabera, kanpalekua poliziaz inguratuta dago. Poliziak ez die kanpalekura sartzen uzten ibilgailuei. Bertara sartzen saiatzen direnak atxilotu egiten dituzte, galdeketak egiten dizkiete, eta ibilgailuak, ura, elikagaiak eta botikak kentzen dizkiete. Marokoko militarrek saharar ekintzaileak tirokatu dituzte, eta 14 urteko ELGARHI NAYEM FOIDAL MOHAMED gaztea hil dute; haren gorpua bahitu eta lurperatu egin dute, familiari gaztea agurtzeko aukerarik eman gabe. Halaber, GARHI ZUBEIR (hildakoaren anaia) eta beste sei ekintzaile balaz zauritu dituzte. Horrez gainera, Marokoko polizia eta armada saharar kanpalekua husten ari dira, han dauden errefuxiatuen aurka indarkeria erabiliz; oraindik ere berriak nahasgarriak izan arren, gutxienez 14 saharar ekintzaile hil direla baieztatu dute.*

*Saharar herria borroka eta erresistentziaren eredu garbia da. Hayako Nazioarteko Justizia Auzitegiak eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak emandako ebazpen guztiek xedatzen dute saharar herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea duela, autodeterminazioari eta independentziari buruzko erreferendum baten bidez. Saharar herriak Nazio Batuen ebazpen*



*guztiak bete ditu, eta erreferendum bidez bere etorkizuna erabakitzeko prest jarraitzen du; hala ere, Marokok gatazka hori nazioarteko politikaren agendatik at uztea lortu du, nazioarteko komunitatearen laguntzari eta herri horren okupazioaren arduraduna den Espainiako Estatuaren pasibotasunari esker.*

*Marokoko Gobernuak halaxe espoliatzen du okupatutako saharar herria. Mendebaldeko Saharak baliabide natural oparoak ditu. Bu Craako meatzeak aire zabalean dauden munduko fosfatozko meategi handienetakoak dira; bertan, 2,8 milioi tona fosfato ekoizten dina urtean. Meatze hori Francoren diktadurapean jarri zuen martxan Espainiak eta 1975. urtean utzi zuen, Mendebaldeko Saharatik eta haren herritik alde egin zuenean; gaur egun, Marokok ustiatzen du. Saharak kalak munduko arrantza-toki aberatsenetakoak dira, eta Europar Batasunak eta Marokok akordioak egin dituzte haietan arrantzatzeari buruz. Akordio horiekin emandako 114 lizentzietako 100 Espainiari dagozkio. Are gehiago, saharar hondartzetako hondarra Espainiari saltzen diote, Kanariar Uharteetako eta Espainiako kostaldean dauden beste hiri batzuetako hondartzak lehengoratzeko. Horrez gainera, Marokok, Europar Batasuneko bazkideak, erasoen, torturen eta legez kanpoko atxiloketen politika ezarri du Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan bizi den saharar herriaren aurka.*

*Saharak biztanle zibilen aurka egindako eraso horiek egunero gertatzen dira Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan.*

*Nazioarteko komunitatearen hipokresiak ez du mugarik. Nazio Batuek emandako ebazpenak behin eta berriz urratzen direla ikusi arren, Europar Batasunak ez du neurririk hartzen, eta, gainera, lehentasunezko bazkide izendatu du Maroko; halere, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan giza eskubideak errespetatzeko eskatu dio, eta saharar ekintzaileak babesteko azpimarratu dio. Europar Batasunaren eta Marokoren arteko lehenengo goi-bilera egin eta hurrengo egunean, saharar ekintzaileak eraso zituzten Dajla, Aaiun eta Smaran. Europar Batasunak ez du ezertxo ere egin horri dagokionez.*

*Zentzu horretan, Espainiako Gobernuak babestu egiten du Marokok Mendebaldeko Saharari buruz duen iritzia, eta, beraz, Espainiako Gobernuaren jarrera lotsagarria izateaz gain, erabat legez kanpoko da. Mendebaldeko Sahara Afrikako azken kolonia da, eta Espainiar Estatuaren historiako beste orrialde beltz bat. Deskolonizazio prozesua ez da gauzatu, herrialde horretako indar administratzailea Espainiako Estatu baitzen; horixe izan da saharar herriaren zoritxarra. Horren harira, eta okupatuta edo erbestean dagoen saharar herriaren erresistentzia ikusita, Ezker Abertzaleak dei egiten du Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren, Fronte Polisarioaren eta, oro has, saharar herriaren aldeko elkartasuna areagotzeko. Hori dela eta, datozen egunetan, Ezker Abertzaleak hainbat mozio aurkeztuko ditu Euskal Herriko udaletan, eraikitako kanpalekuen aldeko elkartasuna adierazteko, haiei ahal den guztian laguntzeko borondatea erakusteko eta nazioarteko komunitateari saharar herriaren okupazioa behin betiko konpon dezala eta nazioarteko*



*legedia nahiz herrien autodeterminazio eskubide besterenezina bete dezala eskatzeko.*

## **EBAZPENA**

*1.- Protesta baketsuan parte hartzeko okupatutako hirietatik irten ziren 20.000 sahararrei elkartasuna adieraztea, eta Marokok eta haren bazterketa politikak saharar herriaren giza eskubideen aurka egiten dituen urradura larriak salatzea.*

*2.- Halaber, gure gaitzespenik handiena adieraztea Marokoko armadaren eskuhartzearen aurka; batez ere, azaroaren 8an, astelehena, egin zenaren aurka, bertan 14 saharar hil baitzituzten Marokoko polizia eta armadaren tiroek.*

*3.- Marokoko agintariei manifestari baketsuen aurkako ekintza basatiak berehala amaitzeko eta saharar herriaren aurkako errepresio gero eta gogorragoa bukatzeko eskatzea.*

*4.- Saharar herriari gure babes osoa adieraztea, eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoari gure eskuetan dagoen guztian laguntzeko konpromisoa berrestea, saharar herriak askatasuna lor dezan.*

*5.- Europar Batasunari Marokoko Erresumarekin duen Bazkide Akordioa bertan behera uzteko eskatzea, giza eskubideen 2. artikuluan ezartzen dena urratzen baitu.*

*6.- Marokok nazioarteko legedia errespetatu dezan eskatzea, bereziki autodeterminazio erreferenduma egitearen alde Nazio Batuek xedatutako ebazpenak, Mendebaldeko Sahara deskolonizatzeko prozesua amaitzeko. Horren harira, indar okupatzailea, Maroko, autodeterminazio eskubide hori garatzera behar dezaten eskatzea Nazio Batuei, Europar Batasunari eta Espainiako Estatuari (lehenago indar Koloniala den aldetik).*

*7.- Azken gertakariak ikusita, Udal honek Marokoko erakunde guztiekin dituen harremanak etetea erabaki duela adieraztea, eta herrialdean dauden Marokoko ordezkariak erabaki horren berri ematea. Halaber, Euskal Herriko hainbat erakunderi neurri berak har ditzaten eskatzea.*

*8.- Herritarrei udaletxearen aurrean biltzeko dei egitea, saharar herriari elkartasuna adierazteko.*

*9.- Azken gertakariak ikusita, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoari laguntzeko gure eskuetan dagoen guztia egingo dugula jakinaraztea.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), García (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA),



guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

**ONARTZEA** talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa, Mendebaldeko Sahararen gaur egungo egoerari buruzkoa, eta 'Zutik Sahara! Elkartasuna Sahararekin!' izenekoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

## **11.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TALDE MISTOKO KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA ORIOKO KIROL PORTUKO LANGILEEN KALERATZEARI BURUZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; mozioak honela dio, hitzez hitz:

*Orioko kirol portuko langileen egoera salatu nahi dugu eta horretarako gertatukoaren berri adierazi nahi dizuet.*

*Langile hauek azkeneko 3 urteetan kirol portuko zaintza egiten egon dira, 3 urte hauetan beraien baldintzak langileen estatutuak jartzen dituenak izan dira. Ez zuten kobratzen ez gaueko plusik, ez jai egunak, bakarrik soldata jasotzen zuten eta beraien urteko jardunaldia 1840 ordu ingurukoa izan da.*

*2010eko Urtarrilean hitzarmen berri bat sortu da, Gipuzkoako Titulartasun Publikoko Kirol-Instalazioen hitzarmen kolektiboa, hitzarmen hau "Asociación Guipuzcoana de Empresas Gestoras de Servicios y Equipamientos de Entidades Públicas y/o Privadas"ek enpresarien ordezkapenean, eta ELA eta LAB sindikatuek sínatu zuten.*

*Orain arte administrazioak aurkeztutako pliegoetan zaintza, mantentze, garbitasun eta marinel zerbitzua egin behar zirela esaten zuten, eta aurtengo pliegoetan zaintza lanak bakarrik eskatzen dira.*

*Honen ondorioa da langile hauek 2011-Urtarrila-1etik aurrera kale gorrian daudela. Zaintza enpresa bateko langileek betetzen dute orain eta hauen lana bakarrik zaintza izango da; baina, beste lan guztiak nork egingo ditu? (amarrek begiztatu, pantalanetako mantentzeak, zikinkeria jasotzea....)*

*"Arrazoi" bakarra pliego aldaketa egiteko, estatuko segurtasun pribatutako hitzarmena askoz okerragoa dela da, bai soldatetan eta baita jardunaldian ere, Gipuzkoako Titulartasun Publikoko Kirol-Instalazioen hitzarmen kolektiboarekin alderatuta.*

*Egun, langileek ekintza judizial denak martxan jarri dituzte. Dena den, hau salatzeko eta langileen eskubideak bermatu ahal izateko, hurrengo 4 puntuak proposatzen dizkiogu udalbatzarrari onar dezan:*



- 1.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea lanpostuak mantentzea eta Langile hauek enpresa berriak subrogatzea lehengo baldintza berdinetan jarraitzeko.
- 2.- Bidezain enpresak, kirol portuan egiten ari diren lanak nola ordaintzen ari diren jakitea, ez bai dago inongo pliego edo aurreko pliegoaren luzapen-erik, honetarako egin behar diren kontsultak eginez.
- 3.- Eusko Jaurlaritzako kirol portuko zuzendari den Felix Asensiori premiazko bilera bat eskatzea, non bertan, udal, portuko-langile eta sindikal ordezkariak egongo direlarik.
- 4.- Udalbatzarraren akordio honen berri prentsa osoari helaraztea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), García (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

**ONARTZEA** talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa, Orioko kirol portuko langileen kaleratzeari buruzkoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

## **12.- ONARTZEA, EGOKI BADA, GAZTETXEAREN ALDEKO ALDARRIKAPENA.**

Azkenik, udalbatzarrak gaztetxearen aldeko aldarrikapenaren berri jakiten du; aldarrikapenak honela dio, hitzez hitz:

### *GAZTETXEAREN ALDEKO ALDARRIKAPENA*

*Aurtengo urtarrilean ondoko mozio hau onartu zuen Orioko Udalbatzak:*

*“Badira urte batzuk herriko zenbait gazte gaztetxe baten aldeko aldarrikapena gauzatzeko ahaleginean hasi zirenetik. Bide horretan pausu batzuk eman dituzte, eta bidean gero eta gazte gehiago batu dira aldarrikapen horretan. Pixkanaka gero eta herritar gehiagoren atxikimendua eskuratzea ere lortu dute. Horren froga nabarmena dira azken bi urteotan ospatutako gazte festa jendetsu eta parte hartzaileak.*

*Inguruko herri askotan gaztetxearena dagoeneko errealitate bat da, gainera, kultur eskaintzaren ikuspegitik emankorra.*

*Orion hamasei urte bitarteko gaztetxoek badute elkartzeko tokia, badute beren gazte-lekua. Ba, haiek bezala, hamaseitik gorako gazteek ere elkartzeko toki egoki bat behar dutela aldarrikatzen dute. Toki bat beren aisialdia antolatzeko balioko diena, eta beren aisialditik, beren sormenetik herriari kultur eskaintza*





*bat egiteko baliatuko dutena. Toki bat non herriko gazte guztiek sarbidea izango duten, non aniztasuna baliotzat hartuko den eta, beraz, non inor ez den baztertua izango.*

*Arrazoi horiengatik, Orioko Udalbatzarrak mozio honen bidez, bat egin nahi du gazte horien aldarrikapenarekin.*

*Hauxe da, beraz aldarrikapen zehatza: Orioko udalbatzak adierazten du aurrerantzean Orioko Udala ahalegindu egingo dela herriko gazteek eskatzen duten gaztetxea gauzatzeko bidean aurrerapausoak ematen, epe laburrean Oriok herriko gazte guztientzat balioko duen gaztetxe bat izan dezan.”*

*Urtariletik hona hainbat gauza gertatu dira. Besteak beste, ekainean Orioko gazteak Etxeluzen sartu ziren eta, geroztik, bertan segitzen dute, etxe hura nolabait ere gaztetxe bihurtuta.*

*Orioko Udalak, bere aldetik, Etxeluze izeneko antzinako etxe hori, bere kokapenagatik eta dituen ezaugarriengatik, egoki ikusten du erabilera horretarako: herriko gazteek erabiltzeko.*

*Gauzak horrela, Orioko Udalak honako urrats hauek ematea erabakitzen du:*

- 1.- Etxeluzek dirutan duen balioa zehaztea, Udalaren ohiko prozeduraz: tasazio egokia eginez.*
- 2.- Balorazio horren jakitun, Udala harremanetan jarriko da etxearen jabearekin, etxea eskuratzeko helburuarekin.*
- 3.- Etxea ordenazioz kanpo dagoenez, ordenazio barruan sartzeko beharrezko diren urratsak emango ditu.*
- 4.- Udalbatzarrak erabaki hauek onartu ondoren, hilabeteko epean abiatua beharko du prozesua, aurreko puntuetan aipatutako urratsak eman daitezen.*
- 5.- Udalak, urrats horiek garaiz eta behar bezala eman daitezen, bide hori urratzeko ardura izango duten ordezkariak izendatuko ditu: halako eta halako.*
- 6.- Udalaren erabaki honen berri herritarrei emango zaie, hedabideen bitartez eta etxera banatuko den idatzi baten bidez.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ) eta Del Hoyo (EAJ), guztira **LAU ABSTENTZIO BOTO**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

**ONARTZEA** gaztetxearen aldeko aldarrikapena, goian jasota dagoen bezalaxe.



## **9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Ez ziren izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**